

ARTISAU- GARAGARDOAREN EGOERA EUSKADIN

2019



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

AURKEZPENA

EGEk (Euskal Garagardo Elkarte – Basque Beer) atsegin handiz aurkezten dizue “Artisau-Garagardoaren Egoera 2019an” txosten tekniko. Urte hau arrunten artean azkena izan zela esan dezakegu, martxoan guztiok ezagun dugun COVIDak eragindako pandemia iritsi baino lehen.

Paradigma aldaketa zakar horrek txosten tekniko honen elaborazioa erabat zaildu du. Oso zaila izan zen 2019ko abenduko zenbakiei erantzun bat ematea, garagardogileak bizirauteko borrokan murgilduta zeuden (eta dauden) garaian. Hori dela eta, are eta balio handiagoa dauka 23 erantzun posibletik 21 jaso izanak (%91). Parte-hartzeari dagokionez erabateko arrakastaz hitz egin genezake, zalantza izpirik gabe.

ARTISAU-GARAGARDOAREN EKOIZPEN OSOA %19 HAZI ZEN 2019AN, AURREKO URTEAREKIN ALDERATUTA

Ikerketa elkarteak sustatuta egin da bigarren urtez jarraian, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura-Politika Sailburuordetzaren laguntzaz eta Barcelona Beer Festivaleko taldeak zuzenduta. Era honetan, zenbait adierazleren eboluzioa ikus daiteke eta mota honetako ekimenen garrantzia agerian geratzen da, datuek herrialde honetan sektoreak dituen joerak adierazten dituzten heinean.

Beste hainbat eta hainbat gizatalderekin gertatu den bezalaxe, Euskadiko artisau-garagardoegileak zetorkien mehatxuaz inolako berririk jaso gabe bizi ziren eta 2019a energiaz beteriko sektore gazte baten hazkuntza eta sendotzearen urte legez itxi zuten.

Antzeko fabrika-kopuruarekin (2019an fabrika berri bakarra sortu zen), fabrika guztien artean ia-ia milioi eta erdi litro ekoiztu zituzten. Horrek urteko %20ko hazkundea dakar.

Era berean, 2019ko laburpenak beste zenbait adierazle positibo biltzen ditu: esaterako, 112 lanpostu zuzenen sorrera (aurreko urtean baino 36 gehiago); ekoizpen kuota %1,1era igo izana, eta merkatuarena berriz, %2,4ra; garagardo-aniztasuna (350 mota baino gehiago) eta nabarmen hazten ari den lekuko osagaien erabilera.

Argazki hau 2019rako eduki izana oso baliagarri egingo zaigu talde bezala hurrengo susperraldia aztertzeko eta laguntza eta babes zuzenaren beharrean dagoen zigortutako sektorean normaltasun berriaz noiz hitz egin ahal izango dugun neurtzeko, laburpen honetan bertan dagoen COVIDaren eraginei buruzko eranskinean diogun bezala.

COVID AURREKO ARGAZKI HONEK HURRENGO URTEETAKO BERRESKURATZE-PUNTUA MARKATZEKO BALIOKO DU


Datuen bilketa honi gainbegiratu bat bota diezaiozuen gonbidatzen zaituztegu eta inplikaturik dauden lagun guztiei gure esker hona adierazi nahi diegu gure garagardoa ekoiztu, sustatu, saldu, gozatu eta handiago egitera zuzentzen duten denbora, esfortzu eta grinagatik.

Jabier Ortega

Euskal Garagardo
Elkarteko lehendakaria



PARTE HARTU DUTEN GARAGARDOTEGIAK



1  **Olañeta**
Errenteria - Gipuzkoa

4  **Bidassoa**
Irun - Gipuzkoa

7  **Olbea**
Agurain - Araba

10  **Byra**
Iruña Oka - Araba

13  **Boga**
Mungia - Bizkaia

16  **Gross**
Donostia - Gipuzkoa

19  **La Salve**
Bilbo - Bizkaia

2  **Lau Gar**
Gordexola - Bizkaia

5  **Etxeandia**
Urduliz - Bizkaia

8  **Tito Blas**
Gorliz - Bizkaia

11  **Urban Beer**
Zamudio - Bizkaia

14  **Basqueland**
Hernani - Gipuzkoa

17  **Maiken**
Balmaseda - Bizkaia

20  **Basabe**
Legorreta - Gipuzkoa

3  **Baies**
Urkabustaiz - Araba

6  **Zarautz**
Zarautz - Gipuzkoa

9  **Gar & Gar**
Donostia - Gipuzkoa

12  **Mala Gissona**
Oiartzun - Gipuzkoa

15  **Txorierri**
Sondika - Bizkaia

18  **Basquery**
Bilbo - Bizkaia

21  **Baga Biga**
Donostia - Gipuzkoa

FABRIKAK EUSKADIN

Azterketan zehatz-mehatz murgilduko gara, RGSEAAren erregistroa eta azken kontsumitzaileari saltzen dioten garagardoa beraien establezimenduetan bertan ekoizten duten txikizkariak (brewpub) ardatz hartuta.

Erregistratutako populazioa 24 enpresa-proiektuk osatzen dute. Horietako bat ez da inoiz jarduerarik izatera iritsi eta bere jarduera 2019an hasi duen proiektu berri bat gaineratu dugu. Guztira **23 proiektu aktibo ditugu**, bik egitasmo honetan parte hartzeko eskariari muzin egin baitiote. Guztira **23tik 21 erantzun lortu dira** (%91).


Joan den urtean, 2020an, jasandako krisi gogorraren ondorioz 2019ko artisau-garagardoaren azterketa aztertzeaz gain

gehigarri berezi bat egin dugu urteko lehenengo erdian artisau-garagardoaren egoeraren azterketari dagokion lehenengo argazkia osatu eta COVIDaren krisialdiak sektorearengan nolako eragina izan duen ikusteko.

Txosten teknikoa inkesta baten bitartez egin da, on-line, SurveyGizmo® software espezializatuaren bidez.

Hurrengo grafikoan Euskadiko garagardotegien bilakaera ikus daiteke, proiektu gutxi batzuekin hasi eta bere hazkuntza 2012tik aurrera bizkortuz, 2014an bere maila gorenera iritsi arte, non zazpi fabrika berri sortu zituzten. 2019an egonkortze-ildoari darraikio, fabrika berri baten sorrerarekin.

FABRIKEN SORKUNTZA




Aurreko orrialdeko mapan ikusi dezakegun bezala, garagardogileak lurraldean zehar sakabanatuta daude: hiru Arabako probintzian, bederatziz Bizkaian eta hamaika Gipuzkoan. 23 proiektuetatik bost baino ez daude hiriburuetan eta hamabi 10.000 baino biztanle gutxiagoko herrietan.

EKOIZPENA

Garagardoaren sektorearen hazkundeak daukan indarra agerian geratu da 2019an, sendotuz eta egonkortasuna eskainiz, beti ere goranzko norabidean. Adibide garbi bat da **2018arekin alderatuz %19 handitu den herrialdeko fabriken ekoizpen osoa. Guztira 1.493.148 litro** ekoiztu dira (2018an 1.252.513). 1,5 MI-ko zifra gertu-gertu izateaz gain urteko milioi bat litroko muga gainditu da bigarren aldiz jarraian. Hurrengo grafikoan ikus dezakegu azken urteetako bilakaera.

GUZTIRA EKOIZTUTAKO LITRO-KOPURUA



Sektorearen hazkunde izugarriak dagoeneko aurreko urteetan trazatutako ildoari darraiola ikus dezakegu. Aurten proiektu berri bakarra zabaldu duela kontuan hartuz, hazkundea organikoa da eta fabrika guztien artean sakabanatuta dago.


Garagardogile bakoitzaren urteko ekoizpen-kopurua da beste datu esanguratsu bat. Ekoiztutako litroek garagardo-proiektu baten beste zenbait adierazlerekin harreman zuzena daukate, hala nola negozio eta langile-kopuruarekin. Hori bai, zehaztu beharra dago banaketa-kanalen bitartez kanpoan saltzeko ekoizten duten garagardogileen eta beraien establezimenduetan bertan kontsumitzeko ekoiztu eta kasu gehienetan sukaldaritzarekin lotura eskuta daukatenen arteko ezberdintasuna.

Orrialde honetan bertan sartutako grafikoan ikus daiteke zortzi proiektu direla urteko 24.000 litro baino gutxiago ekoizten dutenak. Nanosagardogile hauek langile bakar batek bere kabuz daramatzen proiektuak izan ohi dira. Bestalde, zortzi proiektu daude urteko 24.000 – 100.000 litro ekoizten dituztenen artean. Hauetan dagoeneko lan-sormenerako gaitasun hasi-berri bat nabari da. Azkenik, bost proiektutan ekoizten dira urteko 100.000 litro baino gehiago. Proiektu hauetan lanbide-espezializazio bat ageri da, enpresa-azpiegitura baten barnean.


NANO
SAGARDOGILEA
%38



MIKRO
SAGARDOGILEA
%38



SAGARDOGILE
TXIKIA
%24




PRODUKZIOA

Fabriken eta orohar sektorearen hazkundera ulertu ahal izateko beste datu esanguratsu bat ekoiztutako bataz besteko litroen zenbatekoaren eta fabrika-kopuruaren arteko banaketa da. Zifra hau aztertuz sektorearen hazkundera fabrika berrien sorkuntzatik harago ikus daiteke. Guzti haiek produkzioan zein aberastasunaren eta enpleguaren sorkuntzan hazi egin direla nabarmentzen da.

Fabrika berrien sorkuntzan nolabaiteko egonkortasun bat dagoenetik (azkeneko lau urteetan urtero enpresa bat sortu da), garagardogile bakoitzeko bataz bestekoa modu oso esanguratsuan handitu da urtero. Horrek lehendik dauden proiektuen hazkunderaren ideia bat ematen digu.

Bataz bestekoaren ondotik sagardogile-eredu bakarra eratzeak zentsurik ez duen arren, esan beharra dago 2019ko fabrika bakoitzeko urteko 71.102 litroko zifra sektorea osasuntsu dagoen seinale dela, enpresen egonkortze fase baten barnean. Erreferentzia gisa, datu hau garagardoaren mugimendua lehenago hasi zuten zenbait herrialdeetako baina askoz hobea da. Esaterako, Katalunian 2019an urteko 50.800 litro ekoiztu zituzten.


EKOIZPENAREN BILAKAERA



MERKATU-KUOTA

Herrialdeko ekonomian sektore giltzarria den ostalaritzako bi motor aktiboenetako bat da garagardoa, kafearekin batera. 2019an guztira 132,4 M litro garagardo kontsumitu ziren, eta horietatik 1,49 M litro artisauak. Beraz, produkzio kuota %1,1ekoa da, hazkunde handiaren erakusgarri den zifra, 2018ko %0,95arekin konparatuz.

Bestalde, artisau-garagardoak %2,4ko merkatu kuota lortu du, 2018ko %2,1arekiko igoera oso esanguratsu batekin. Merkatu-kuotaren kontzeptua salmenta portzentajetzat hartzen da, sektoreko salmenten guztizkoarekiko. Ondorioz, aleko prezioak garrantzi handia dauka bere kalkuluan. Artisau-litro berdinek industria-garagardorenak baino negozio-bolumen handiagoa eragiten dute, industria-garagardoak aleko kostu txikiagoa baitu.



EKOIZPEN-KUOTA **%1,1**



MERKATU-KUOTA **%2,4**

GARAGARDOA

Artisau-garagardoaren sektorea zerbaitek deskribatzen badu, hori bere aniztasuna da: estilo ezberdinak aurkezten dituzten zapore, usain eta koloreen aniztasun handiarekin, euskal sektorearen jarduerak eta sormenak 2019an ere jarraitzen dutela esan genezake, aurrerago irakurri ahal izango duzuen bezala.

2019AN EKOIZTEN DIRA

352 GARAGARDO DESBERDIN,
GAMA FINKOTIK EDIZIO
BEREZIETARA



Ikerketan parte hartu duten 21 sagardogileek 352 garagardo-mota ezberdin ekoiztu dituzte 2019an eta, beraz, garagardogile bakoitzeko 16 garagardo-mota desberdineko batz bestekoa ematen digu horrek. Garrantzitsua da garagardogileen arteko ekoizpen-kopurua eta garagardoaren bi tipologiak kontuan hartzea: oinarritzko gamaren barnean kokatu ditzakegunak urtean zehar ekoizten dira; edizio bereziak edo denboraldikoak direnean, ordea, stock bat ekoiztu eta ez da ordezkutzen.

%36



ERABILITAKO MALTAK TOKIKOAK DIRA

%15



ERABILITAKO LUPULUAK TOKIKOAK DIRA

Ekoizpen-prozesuan oso garrantzitsua da tokiko lehengaien erabilera (Euskadi jatorria), lurraldearekiko daukan lotura artisau-garagardoaren oinarrietako bat baita. 2018an bezalaxe, Euskadi jatorridun produktuekin

egiten du lan sagardoegileen %60ak. Tokiko lehengai horien barnean malta eta lupuluaren erabilpena areagotu egin da 2018koarekin konparatuz (orduan %26koa eta %7koa zen hurrenez hurren).

Egurrezko upelen erabilpenak aurreko urteko ildo beretik darrai. Sagardogileen %35ak erabiltzen du heltze-prozesu hori. Datozen irudietan ikus ditzakegu ontziratze-mota ezberdinen erabilerak:

UPELAREN ERABILERA BANAKAKO ONTZIRATZEAREN AURREAN

DENA UPELEAN

%5

%50 BAINO GEHIAGO


%29

ERDIA %50-%50

%19

%50 BAINO GUTXIAGO

%47



%62

ERABILERA
BAKARREKO
UPELAK

Banakako botilaratzeari buruzko xehetasunen artean aipatu beharra dago azken urteetan potoak prestigioa irabazi duela, garagardo freskoa kanpoko eragileengandik babesten baitu eta %100ean produktu birziklagarria delako.

POTOAREN ERABILERA ONTZIRATZE INDIBIDUALEAN

DENA POTOAN

%5

%50 BAINO GEHIAGO

%5

ERDIA %50-%50

%28

%50 BAINO GUTXIAGO

%67



ENPLEGUA

Enpleguak nabarmen egin du gora artisau-garagardoaren sektorean 2019an, 112 lanpostu sortuz, 2018an baino 36 gehiago, harrigarria badirudi ere. Negozio-eredu berrienganako apustuak eragin du datu hori, hala nola tap-room-ak edota fabriketan bertan kokatzen diren dastatze-eremuak. Sektorea berriztatu eta bolumena areagotzen duten negozio-bide hauek kontuan hartzea ez legoke gaizki, berrasmatu eta garagardotegiak indartzeko.


Lan-profila oraindik ere gizonezkoa da hein handi baten (%85), non sektorekako dedikazioen batez bestekoak hauek dira: %40 produkzioan, kudeaketan eta merkataritzan %20,00 eta banaketan eta Marketinean, %10.

Jarraian, kokapen bakoitza nola garatzen den zehatz-mehatz ikus dezakegu, garagardotegietako lan-posizioei buruzko kontsulta zehatza egin baitugu.




**PRODUKZIOA,
GARAGARDO-MAISUA**

- **PROFILA: BATAZ BESTE 30 ETA 39 URTE BITARTEKO GIZONA**
- **% 57 BERARIAZKO PRESTAKUNTZAREKIN ETA GEHIENGOA UNIBERTSITATE-IKASKETEKIN**
- **% 86 LANALDI PARTZIALEKO DEDIKAZIOAREKIN**



MERKATARITZABURUA

- **PROFILA: 30 ETA 39 URTE BITARTEKO GIZONA**
- **BERARIAZKO PRESTAKUNTZARIK GABE ETA GEHIENAK UNIBERTSITATE-IKASKETAK EGINDA**
- **% 57 LANALDI OSOKO DEDIKAZIOAREKIN**
- **BATEZ BESTEKO SOLDATA: 20 K€ ETA 30 K€ ARTEAN**



**MANAGER
OROKORRA**

- **PROFILA: 40 URTETIK GORAKO GIZONA**
- **%60 BERARIAZKO PRESTAKUNTZAREKIN ETA GEHIENAK UNIBERTSITATE-IKASKETEKIN**
- **% 80 LANALDI PARTZIALEKO DEDIKAZIOAREKIN**
- **BATEZ BESTEKO SOLDATA: 30K€ ETA 40K€ ARTEAN**

SALMENTAK ETA BANAKETA

Orain, banaketako, esportazioko, hirugarrenentzako elaborazioko edo saltokietako gakoak aztertuko ditugu. Infografian ikus dezakegunez, %34a tokiko salmenta da (-30 km), eta salmenten %62a Euskadin geratzen da, hurbiltasun-ereduari eutsiz.

Esportazioak paper garrantzitsua hartu du. Hainbat herrialdetara esportatzen dutenak %50a baino gehiago dira, baina horietatik %72ak

ekoizpen osoaren %20a baino gutxiago esportatzen du.

Garagardoaren %62a Euskadin kontsumitzen dela eta %14a esportatu egiten dela ondorioztatu dugu.

Esportazioak Frantzia, Italia, Herbehereak, Belgika eta Erresuma Batua doaz, beste herrialde batzuen artean.



%34

TOKIKO SALMENTA
(-30 KM)



%62

EUSKADI
KONTSUMITZEN DUTE



%14


ESPORTAZIOA

BANAKETA- MOTAK

%19
BANATZAILEAK

%33
SALMENTA
ZUZENA

%48
MISTOA



%62AK SALTOKI HANDIETAN SALTZEN DU

%61 %20 BAINO GUTXIAGO

%23 %20 ETA %40 ARTEAN

%8 %40 ETA %50 ARTEAN

%8 %50 BAINO GEHIAGO


LOKAL ESPEZIALIZATUEN SALMENTA

%52 NO VENDE

%14 %20 BAINO GUTXIAGO

%10 %20 ETA %40 ARTEAN

%24 %50 BAINO GEHIAGO




KOMUNIKAZIOA ETA TURISMOA

Gero eta garrantzitsuagoa da sare sozialetako komunikazioa. Merkatua zabaltzen ari da zentsu horretan eta garrantzitsua da sektore honetan eguneratzea eta bisita eta jarduera turistikoetara irekitzea.

Sare sozialak erabiltzea oso bide egokia da marka ezagutarazteko, produktu berrien sorkuntzari buruzko informazioa emateko eta on-line salmenta sustatzeko. Alde horretatik, aurrerago ikusiko dugu, egungo krisiak, enpresak

berrasmatzera eta inoiz baino indar handiagoarekin kanal hauek erabiltzera bultzatu dituela.


Horrela lotzen dugu garagardoaren turismoa, pixkanaka artisau-garagardoaren sektorean lekua irabazten ari dena, produktua ezagutzen duten bisitari gehiagorekin eta hainbat jarduera turistiko dituen negozio-bide berriarekin.



%95
INSTAGRAM



%95
FACEBOOK



%52
TWITTER



%47
UNTAPPD

GARAGARDOTEGIEN %85AK TURISMOAREKIN ZERIKUSIA DAUKATEN JARDUERAK DITU



%22

KULTURALAK

%33

TAILERRAK

%39

KONTZERTUAK

%43

DENDA
FISIKOA

%57

TAPROOM

%89

DASTATZEAK

%94

BISITA
GIDATUA

Jarduera turistikoek espazio berriak sortzen dituzte: %57k tap-room-a daukate (dastatzeko gela), eta %43k denda fisikoa, beraien instalazioen barnean. Hori dela eta, zuzeneko salmenta errazagoa eta eskuragarriagoa da instalazioak bisitatzen dituzten guztientzat.

**9.000 LAGUNEK BAINO
GEHIAGOK BISITATU ZUTEN
GARAGARDOTEGIETAKO
INSTALAZIOEN BAT 2019AN**

DOSSIER COVID19

Euskadiko artisau-garagardoei aplikatutako
COVID19 egoerak mundu-krisian duen eraginari
buruzko lehenengo hurbilketa




COVID-A ETA EUSKADIKO ARTISAU-GARAGARDOA

Ikerketarako oso garrantzitsua da etorkizunera begira garagardogileek daukaten iritzia eta bere beharrianak ezagutzea, sektorea hobetu eta egonkortzeko. Zoritxarrez, 2020an krisi gogor baten astindua jaso dugu mundu osoan. Ohiz kanpoko egoera ikusita, egoerari buruzko lehenengo azterketa bat eskaini nahi izan dugu, 2020an zehar alarma-egoeraren deklarazioak eta

taberna eta lokalak aldizka ixteak eragindako kalteak zenbatzeko.

Aurreko orrialdeetan ikusi dugun bezala, 2019. urtea goranzko norabidean joan da, aurreko urteetako zifra onak sendotuz.



1,5

MILIOI
LITRO



112

LANPOSTU




352

GARAGARDO-
MOTA



%2,4

MERKATU-
KUOTA



%1,1

EKOIZPEN-
KUOTA

Eranskin honetako galdetegia 15 fabrikek erantzun dute, eta hemen dituzue datu eta ondorio nagusiak.

Euskadiko artisau-garagardoaren egoerari buruzko datuak hobetuz joan dira, eta urtez urte egonkortuz, 2019ko txostenean ikus daitekeenez.

OHIKOAREKIKO LAN ERRITMOA

Elaborazioa, hartiduraren kontrola, ontziratzea eta ekoizpenarekin lotura daukaten eginbehar guztiak barne hartzen dituen ekoizpen-sailak COVIDak erasandako lehenengo sei hilabeteetan zein erritmotan lan egin duen aztertuko dugu jarraian. Grafikoak adierazten digun informazio orokorrean ikus dezakegu garagardogile gehienak ohiko produkzioaren gaineratik edo batez besteko produkzioan geratzen direla.

%22
EKOIZPEN OSOA

%14
EKOIZPEN HANDIA

%57
EKOIZPEN ERTAINA

%7
EKOIZPEN TXIKIA



HURRENGO ORRIALDEA SALMENTAK

COVID19aren eraginpean igarotako lehenengo sei hilabeteetako salmentak xehetasunez erakutsiko ditugu ondoren.

Barra-grafikoaren laguntzaz, salmenta-portzentajea kanal bakoitzean ohikoa denarekiko nola dagoen ikusiko dugu. Lehenik eta behin, salmenta globalak ditugu, eta, ondoren, salmenta-kanal nagusiekin zatitzen dugu:

banaketa, esportazioa, zuzeneko salmenta eta on line salmenta (atal bat merezi du, eta aurrerago ikusiko dugu, zehatz-mehatz, zein bilakaera izan duen eta nola lagundu duen saldu ahal izateko, beste salmenta-kanal batzuk geldiago zeudenean). Aurreko urteetako ohiko salmentekin alderatuz, 2020ko lehenengo sei hilabeteetan egindako salmenten ehunekoak erakusten dizkigute datu hauek.



%21_{AK}

BERE OHIKO SALMENTE-
KIN ALDERATUZ %
50ETIK BEHERA SALT-
ZEN DU




%57_A

A %60 ETA %80AREN
ARTEAN DAGO



%21_{AK}

AK OHIKO SALMENTEI
EUSTEN DIE




ABEE-A

Ezparru askok jasan dute 2020an bizi izan den egoeraren astindua, eta artisau-garagardoa ez da kanpoan gelditu, ostalaritzarekin daukan lotura estuaren ondorioz. Enpresen %53ak ABEE bat aplikatu du urteko lehenengo sei hilabeteetan, eta %27ak egoera horretan jarraitzen du egun.

Positiboa da urteko lehen erdia igaro ondoren garagardogileen %73ak %100a berreskuratu eta ABEEtik atera ahal izan duela ikustea. Zoritzarrez, haien %13ak murriztu egin behar izan du langi-


le-kopurua. Inkesta erantzun duten guztiei galde-
tu diegu ea epe laburrera langile-kopuru hori murrizteko asmorik duten, eta %86ak ezezko itxaropentsu batekin erantzun digu; gainera, %87ak enpresaren bideragarritasuna posible dela deritzo.

Enpresak berreskuratzen laguntzeko KOIen eskaerari buruz ere galde-
tu diegu, eta %60ak eskaera egina du dagoeneko.



ON LINE SALMENTA

Egoeraren faktore positibo bakanetako bat da sektorea berrasmatu egin dela eta bezeroarengana iristeko modu berriak aurkitu dituela, tartean hainbat gorabehera izan badira ere. On line kanala oso lagungarria izan da, eta ondo islatzen dute ondorengo datu hauek: %86ak aukera on bat ikusi du bezeroarengana iritsi eta komunikazio-kanal berri bat sortzeko. Ohiko salmenten %54a suposatzen du. Fabrika bakar batek baino ez du izan kanal horren bidezko salmenta-igoeraren %50a baino gutxiago; gainerakoak %60tik gora joan dira, eta bi kasu esanguratsu daude tartean, haien on line salmentak %1.000 baino gehiago handitu dituztenak.



Administrazioak hainbat laguntza eskaintzen ditu. Jarraian, gehien eskatu dituzten neurriak aurkeztuko dizkizuegu. Gehienak ekonomikoak dira.

Sar gaitezen xehetasunetan:

• Lantegi gehienek zuzeneko tributu-laguntzak eskatzen dituzte (salbuespenak, erreklamaziorik, atzerapenik eta interesik gabe).

• Hainbat garagardogilek alokairu eta kuota-ordainketetan beherapenak egiteko aplikazio partzialei buruzko neurriak proposatzen dituzte.


• Erdia baino gehiago BEZa murriztearen alde dago ostalaritzaren sektorean.

• Zuzeneko tributu laguntzak (salbuespenak, ez geroratzeak) eta zeharkakoak (KOI, lehentasunezko maileguak) ere ongi baloratuta daude laguntza-neurri gisa.

• Ostalaritzak erakundeengandik jasotzen duen laguntza ez da %50era iristen. Bigarren mailan egongo litzateke zuzeneko laguntzek funtzionatuko balute. Balio gutxi ematen zaio babes instituzionalari, Retailen agerpena handiagoa denean.



%80
ATZERAPENAK
TRIBUTUETAN



%73
ATZERAPENAK ALOKAIRUAN
ETA KUOTETAN



%60
BEZ-A
MURRIZTUTA



%47
ZEHARKAKO
LAGUNTZAK



%53
LAGUNTZA ZUZENAK
TRIBUTUETAN



%33
ERAKUNDEEN
OSTALARITZARI
EMANDAKO BABESA



%7
RETAIL ERAKUNDEEN
LAGUNTZA



%27
ESTELAKOAK

**Euskadin 2019an
artisau-garagardoak bizi duen
egoerari buruzko txosten tekniko
honek garapen bidean herrialde
osoan zehar hedatzen ari den
sektore baten argazki fidagarria
aurkezten digu.**

**Bere elaboraziorako Euskadin
garagardoa lantzen duten fabriken
%91ak parte hartu du, ondorioz
ekoizpena, bertako lehengaiak,
salmentak, enplegu-sorkuntza,
banaketa eta etorkizunerako
ikuspegia bezalako ezparruetan
errealitatik oso gertu dauden
emaitzak lortuz.**

**Datu hauek Euskadin
artisau-garagardoak bizi duen
egoera lehenengo eskutik
ezagutzeko aukera ematen digute
eta, batez ere, etorkizuneko
norabidea trazatzen laguntzen
digute.**



www.basquebeer.eus

ege@basquebeer.eus

**Beer Events SL enpresak egin du txosten tekniko hau,
Barcelona Beer Festival jaialdiaren antolatzaileak.**

